

OLERTI 1992-93

Santiago Onaindia

Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura 12. (1994) p. 355-401

ISSN: 0212-3223

Donostia: Eusko Ikaskuntza

AURKIBIDEA

POESIA JATORRA

Amets-zura (G. Muñoa)	361
Azken katea (G. Muñoa)	367
Urkiagatar Estepan 'Laaxetari' (A. Zinkunegi)	368

POESIAZKO HITZ LANAK

Seme itoa (S.O.)	371
Euzkadi	374

BERTSOLARIAK

Bertso paperak (J.M. ^a Etxeberriak prestatuta)	387
Markiñako distritoan. Bertso berriak	389
Markiñako distritoan eindako komediak	391
Rodas eta Aznar	393
Frantziari (Duhalde, Noël)	395
Euskalerritari gudan	399

POESIA JATORRA

AMETS - ZURA

I

Zazpi bihotz bete ezpatada,
zazpi odol zaurien nigarra,
zazpi amets gaizto datoz nigana,
zazpi begiez bilzututako amaia.

Azpilean arro urdin itsasoa,
azti jokoz urraturik basoa,
saskiz giltzaturik asmoa,
aski gaurko ausardi pausoa.

Kolorerik gabeko amets ilunak,
zazpi zilar izarren disdira izkutua,
lizardien arteko eroen zuzentasuna
nonbait ahaztutako inoren bihoz odoltsua.

Zazpi zentzu gabeko hitz gordinetan, gorderik
lengoke, damatxo baten filosofia. Zazpi aldiz
ahoskaturiko zazpi hitzetan, leudeke amoros
haien gordelekuak. Askatasun ezan lokarririk
gabe jositako zazpi lerrotan genezake itxuri bizi-tza.

Bi tarteko lerroen artean igor al daitezke
egun beteko zoramenaren miseriak?

2

Gabon Gauaren
aparrez estalia,
kaos guztien
kosmosaren ikara,
amets.
guztiek dira gezur,
gezur guztien,
egiaren ikara.

Babelgo dorrezainaren,
hizkera urdina,
urdina birgina,
entzun, adi,
baina ulertezina,
ulertezina
ulertezina
gezur guztien
egiaren ikara.

3

Kanpai dorreko,
ezkil hotsa,
dan dan dan
dan
joka eriotza

Itsasoko Andra Maria
babes hotsa,
dan dan dan
dan
lurtarren ahotsa.

Menditarteko Ama
Seme eta Bildotsa
dan dan dan
dan
erromesen laguntza.

Oiartzunik gabeko
kantuaren lotsa
dan dan dan
dan
burua ezin altxa.

II

1

Bi, bizitzaren
 bi zatien bitarteko,
 doinu kilikariak,
 goibeltzen du, bihar arteko
 lori donirikoen ezpala.

Bi, bisitarien
 bihotzen begitarteko
 kolorea irudikaririk,
 iluntzen da, egun lortzeko
 itsas ludikoaren aparra.

Bi, bi ehiztarien
 grina garratza estaltzeko,
 txispa makilkalariak
 arrotzen du, basa, bazterreko
 gose tragikoaren sugarra.

Bi, bi baleztarien
 bizkarra biderkatzeko
 gezi ziztalariak
 erdibitzen du, edozein gorteko
 pekatu kaotikoen sagarra.

III

1

Su, sutan dago
 hiria
 amets gorrien
 ur sakonetan
 murgildurik,
 su, sutan dago
 irria.
 Zu, zugan dago
 hazia
 gau frutuen
 lirikotasunean
 amildurik
 zu, zugan dago
 bizia.

2

Galdutako ludiaren
ezpata disdiratsua,
zilar ziztadaz,
mundu amultsua.

Galduz, galduz, dihoakit
mundua, ahotsik, gabeko,
amildegien, amiltze etengabea,
eta zu, zure kobazuloko
iluntasun estaliatik, gozo zuri
zatoz, zatoz, bi ezpain,
ezpain, ezti, gozagarri.

Gizakume gizajoaren
gizalegea bailitzan, leizeak
narama, etengabeko jauzian,

itzal basatien eztenkadak,

irekin odola, sentikor

sentibera, bera eta maitea,

ezpainen tronu ilunean, dir dir
zilarra bihotzera, zazpi suen
zauriz, datza hila bihotza.

3

Laino guztien azpitik izadia da. Izanik
ere, lainoek gaituzte estaltzen,
euri hotza.
Lur irrikaz jauzten den itsas lizuna, beso
ezetuen artean, besarkada sakona,
uhin ahotsa.
Iluntasun sarkorrean, sortu berri, argi ikara
da, ikara, zur eta huts, bizia
eta eriotza.

Ur bitan dihoa, ezinaren ahots zabala,
egun gaurkotasunaren geroaz nahasturiko antzina
Bi izar bina zeru, urperatuz haragia, lizun
atseginez, hornituriko zelaia, sabel lotsa.
Barne muinetan ernaturiko, suzko haragi,
bularra, bizitzara jauzitako ondorengoen malkoa.

Irudi errepikaz, aztoraturik ispilua,
islada ilun, disdira, itzal hertsien sakona.
Zazpi lorez, zazpi sugez estaliriko antsia,
bizi grina etsituaren, erioaren hurbila.
Lelorik lelo, lehen aldiko lerrotik sendo,
gordina, leloa aurrera doalarik
datorkigu azkena.

I V

1

Gauerdiko loraldi hezetan,
amets lizunen
koloreztutako beldurra,
inferru itzalaren,
amildegia,
beltza elurra,
hila ere
baitago
gizonaren lurra.

Gauerdiko loraldi hezetan,
bekatuen,
—bekaturik balego—
gau ezkilaren
lotsa,
beltza bihotza,
bizia ere
galdua
heriotz hotsa.

Gauerdiko loraldi hezetan,
azken triptikoen,
lurpeko herena,
gizon bakoitzaren,
jauzia,
dama arrotza,
joanik ere,
doakigu
azken esperantza.

2

Arpa itsuen, kantu
lizunen artetik,
artea, hartan
artazuriketaren solasaldian,
ardo gozoen
garratz ozena
isuri artean,
atari atabikoaren
mirakulu eta ametsa.

Bat, eta bat,
bi dira zero,
urdin itsaso,
mugildurik musikaren,
nota biluzien
igeri sensualean,
hezetasunaren gainean,
adats magikoaren barna,
makila eta sua.

3

BAGA

ehiztari iluna mendi ikara
egunez ere etxeratu arte GABA.

BIGA

txoria kantari zegoana
asaldaturik izkutatu da KABI

HIGA

argi kolorez zerua iduri
deuseztatzeko gorrotoz gizona GAI.

LAGA

handi nahiak bularra puzturik
adimen borondate hain maitasun arGALA.

BOGA

ilunduz doa basajaun mendietan
adi aurra hoa lotara aKABO.

SEGA

azken bost puntuak indar beltzen
eskutan datzate urrez loturik gauzKATE.

ARMA

txispa txistuz lurrera ezkila
dinbili dandala urrunean marMARA.

TIRO

dandaba hotsa trumoia ote
kaltea areago madarikatua HORI.

BELE

hegan zebilena lurrera bota
bizirik utzi bazenu ia HOBE.

PUM!!!!

AZKEN KATEA

Basa Jainkoen
 eskutik sortutako
 itsas gerlaria
 itsaso amadura
 disdiratsuz datorrena
 «ez, ez dut amorerikan,
 ez amorerikan behar»
 burdinez estali behar dituk
 gorputz ta bihotza
 gorputz ta bihotza.

Ezer ezatik
 sortutako gudari
 itsas aparra
 «ez diat behar
 itsas armadura,
 ez diat behar
 lurperatu nahi nauena».

ez, ez amorerikan behar...
 uhinek estali behar ditek
 gorputz ta bihotza
 gorputz ta bihotza.

Irudi galduaren hila,
 irudi.

Hiru dira, uretan hilak,
 iduri.

Iturri amilduaren mila
 ituri.

Ihurri ametsetan habila,
 izuti.

Idurki harroen zilarra
 iduzki.

Irudi
 hila,
 Irudi,
 galduaren
 bila
 ihurziritan,
 zipristin,
 bihurrietan
 ipuizale xaharra
 ipularra bezain agorra
 itzungiz doa
 irudi
 irudi galduaren
 hila
 zipristin
 bihurrietan
 irudi
 galduaren
 hila
 bizia
 zaigu
 itzuri.

URKIAGA' TAR ESTEPAN «LAUAXETA»'RI

Milla bederatzireun bosgarrean
Dagonillaren iruan
auzo-probintzi degun Bizkaian
Mungiako inguruan
zeu, Estepantxu sortu ziñean
leku alai ta txairoan
«Lauaxetako» basetxetxoan
sendi on baten beroan

Urkiaga ta Estepan ziñun
abizena ta izena
Josulaguna izan gurarik
ikasketara joana
«dana» laga ta itzuli ziñan
aita ta amatxon gana
erlijioso ez izan behar,
gurasoentzat zer pena

Aurrerantzean ere etzendun
denpora alperrik galdu
olerki goxo xamurrak egiñ
jakintza lanak ugaldu
lagun-inguru guziarentzat
beti gozoa azaldu
Euskadi aske irrintzi eta
Jel ikurriña zabaldu

Sabindar ziñan lau aldetatik
zeu, abertzale sutsua
«Iberon Ami»pk itsatsi zizun
Jel gan maitasun gertsua
lotsatu barik nunai azaldu
kistar fede indartsua
atzen orduan ere alaxe
zerutar asnas kutsua

Idazle aundi biotz gozodun
aingeru itzez jantzia
liburuetan ustu zenduan
jakindurian ontzia
zure ludiko lana izan zan
maitasuna eskeintzia
zeñen tamala! ain gazterikan
bizia ala kentzia

Aita maitea, barka zaiezu
Jesusek gurutzetikan
Estepanek, e ori egin zun
Kristo'tar zan aldetikan
ordu beltz artan, odol egarriz
bizia kendu gatian
etsai ankerrak gaur ez ote du
egitiñ zunaren penikan?

Agustin Zinkunegi

POESIAZKO HITZ LAUAK

SEME ITOA

(Bakar-izketa)

I

Ire aurrera naiatork gaur ere. Baiña, aii ez leen baizen umore biziko: igaz aspertua nator. Ez naiatork maite-kantak ots-egiten, eta bai sumindurik, neure barruko naigabea iri erakustera, iri arpegira botatera neure samintasun ezin-eroana iri edatera. Leen bai, itsaso!, i goratzea noian eder; gaur, ez! Leen argitsu neukan zeru zabala, asarrezko laiño baltzez bete jatak buru-itzul batean.

Ez, itsaso!, igaz ez joat artu-emonik gura. Azpitik, doillor eta saltzaille, jokutzen dakik. Ire bizkar-gain ibillia nok txo nintzanetik; beti ire lagun zintzo, kutun. Ni neure ontzitxoan; i beti billosik, kresak bizi; ni, egia, zurezko oskol barruan, ire lepo-gain beti dantzari. Maitale bi gintzoazan, i urrezko printzez niri begiak lausotzen, eta ni lepoa iri samurkiro laztantzen. Gau ta egun maitale, txera ta esku-atseginka alkarri poza emoten.

Baiña maitale zuri-galdua aiz, azpi-jale, itz ustela. Ez noan olakorik uste; ez, itsaso gaizto! Erlabio antzera, uste gabeen dakik biotza ziztatu ta odolitzen. Zer uste dok, zital orrek? Olan ondatu daroak uste ona? Nork emona dok olako azikera? Nabarmena alakoa!

Beraz, gaur-gero ez joat, zakar ori!, geiago kantarik, ez joat iretzat maitezko itzik, ez bertso gozorik. Oraintsu arte, Kantauri! aundi, munduan bateko, ezin bikaiñagoa intzan niretzat, poetarik aundienak aspaldidanik abestu izan joenez. Ifioiz idatzi joazak i goratuz gertso sentikor gartsuak, baita labor doilutsuak ere. Aurrerantzean ez dok izango, nik eskeiñita, olako emoitzik. Ez, ez dok merezi iñork i goratzerik ez bertsotan ez itz-askatuz. Ez aiz nire gomutaren din. Begitan artu aut, gorroto emoten dauskat. Mada-rikatua aiz!

II

Eure zabal-sakonean gose aizala dirudik. Nire semea —eder, maite, beargiña— euk irunsi dok. Gose ori, zabaldi galanta euretzat edukita ere, ur gazi aitean daukakan tripa-zorri ori ezin beterik ago, itxura danez. Zertako ori? Zergaitik aukera dok nire seme laztana, eure asegarri? Ez al dozak or, zabaldian, konta ezin ala piztitzar, mamu, arrain-mota, maskor eta bedar-lege?

Arri ta zur egiñik gaiagozak ire irunsi bearra ikusiz. Lur-zati aundiagoak eta lur-jente geiago bear ete dozak? Bizi garean borobil ontan, ez ete aiz eu lautik iru? Oindiño ez al aiz aundi, gizaseme, ondasun eta aginte geiagoren naiez ain suar ibilteko? Zergaitik, apetak joa? Lartxo ez ete? O ire orru, janbear eta nekeak!

Leenago atsegin jatan emen, iri begira, ordu luzeak emotea. Orain ez, nazka dakarstek orain. Alan be, iregana etorri nok eta ementxe naukak adi-adi, molle gaiñean, mokor onetan tente. I, ezer gerta ezpaltzok lez, or abil zabu-zabuka betiko antzera, mamu ezin-egona, ardurarik ezean. Zantar!, ezin aut eroan, min damostak, erdizkamu, atzerakuntza ta griñik-ez origaitik. Leen on-eritxia neuan, arridura, ederrespe-na. Baiña guztia itzali zoan, goiz-izarraren ditzira itzaltzen dan eran.

Alai bizi dira etxean senar-emazteak. Baita ni ere ire altzoan, goizetik gabera arrantzuan. Maitemin-duak pozik pagopean alkar mosukatzen; nik ere bardin gozo ta ezti somatzen ire bizkarraren ikutua, ainbat eta ainbat urtetan, neure semearekin batean: albako kanpai-otsa entzunaz, iregana gentozan geure potik txiki dantzarian. Eta egun osoan, ire orru, intziri gorde ta txipli-txapla eztiak ezpiritu barruan gozaten euskuen. Orduan, ez, ire noiztik-beinko murruta gaiztoak ere ez jakuzan gogaikarri: aita-semeen arteko bai-ezta ta matrakalak zirudien.

III

Gaur ez da bardintsu. Argi dago! Semea irunsi eustanetik gordin orrek, izu-ikaraz naukak. Ez nok ausartzen ire bizkar-gain ibilten: bein maltzur jokutzen dauanak, bigarrenez ere jokatu leikelakoan naia-gok. Gose nok —ire antzera bear hada?—, baiña ez naz gauza ire besoetara jasteko, eta ementxe nago iri begira, adi-adi; ez gero i miresten, i madarikatu nairik baiño. Erruki akik, or jaukak familia, emaztea ta seme-alabak; gosez eurak ere, ireganako gorrotoz gaiñera, onaiño urreratzeko adore barik. O itsasol!, itsaso! Leen eder, orain iguingarri! Erruki adi; sar egik gugan leen bezela uste onaren su eskertsua.

Tximiñoitan zan gure arazoa, ba-dakik. Potin oskol batean genbiltzozan aspertu bage. Ez gintzazan orreek ontzi aundiak legez, ur ta urrun, ire sabeleko frutu oparoa osorik arrapa naiean. Gu apalagoak gozak, ire adiskide ta lagun. Lurra landuz eskuratzen joek janaria baserritarak; orobat guk ere, iri bakartadean lagun egiñik, eure zerbait geuretzat jaso. Jakin egik: ur-masa ikaragarria izanagaitik, Jainkoak geure zerbitzurako ipiñitakoa aiz gero! Jakin egik, bai!

Egia autortzeko, i ez aiz zekena euskal erriararentzat; ire barrutitik joagu jatekoa askok eta askok. Baiña zintzur-zuloak aunditzen atazanean, ikara sartzen dok zur-gunetaraiño. Sari dituguk ikusi untzi-pilloak askol irudi ire bizkar-gain dantzari, baita iñoizka ire errai irakiñetan pulunpaka mustegin eta ondaratzen ere. Olan maiz ipiñi dituk euskal familiak naigabe bitizan. Zergaitik ori? Errazoi bakoa dirudik sarri eure jokabide zoroaz. Sumindua ago, itxura baten, lurak esitzen aualako; naiz-ta bits zurizkazko meta ikaragarriak arkaitzen kontra ta ondartzta zabaletara bialdu, eziña jak aurrera egitea. Origaitik edo, ire orru-purustadak?

IV

Nire oiuaq gora doaz, neure semearen eriotza negartuz. Latza dok nire aoko otsa, garraxia, ire biotza ikaratu nairik jalgi-azoa. Ain neban maite! Ona etortean uste neban, nire kezkek entzunaz, ire barrua bigundu zala, baiña ikusten dodanez, bardin jarraitzen dok goibel, anbrotsu, malkarra baizen latz. Negar-anpulu lodiak datorkidaz matrail-beera. Eta iri zer? Gaba lez its biurti jatak arimea, baiña iri zer? Nik, alan be, uste joat nire semeak aditzen ditula nik orain egotzitako ai-otsak.

Ik egindako ezbear izugarriaren ostean, itsasotik, nasa ertzetik zear, buru-makur ta biotz-erre, etxera nintzoanean, amak itandu eustan: «eta semea?» Ni triste ikusirik, zerbaiten susmoa eukan. Ez nekian zer esan, ez neukan itzik aoan. Azken baten bota naioan: «Itsasoak irunsi dau!» Oso-osorik laru jarri jakon

arpegia, samintasunezko garraxi itzala emonik; atzera egin joan ekatxa eltzean itargi sasi-malkoz arpegia ostenduta agiri oi danez. Eskutik oratu ta alboko aurkian jezarri-azo neban. Zoratua lez egoan gaixoa. Bion zati zan semea! Orduetan ere negar-malkoz galdostuta eukazan begiak. Ezin etsi! Gaixoa! Anai-arreben begiak bardin, negar-uiol ziran, euren biotz leartuak asazkatu ta usturik. Arrezkero, gurean, etxakik iñork poza zer danik.

Errian lagun asko zituan arek, gure seme maiteak. Orain ez da gaixoa, ez da bizi, illen erreñuko dok, eure erruz... A billatzen joek lagunak igandez, baiña a, leen alaikor ebillena, orain ez dok agertzen zumardian, ez kalean, ez ondartzan. «Maite genduan!», diñoen neskatxak; eta mutilak, gazte lagunak: «Gure gidari zan!» Eta orain ez da, ez da gure aldrako. Lagun maitea! Igande arratsaldetako poza! Ez, ez dabe geiago gazte areek euren lagun jatorra.

V

Ai, itsaso! Esango ete joat, zelan izan zan gauzea? Gogor jatak, baiña beioa ta jakin begie ire bizkar dabiltzanak, irekin kontuz ibilli daitezkan irekiko artu-emon arrisksuetan. Goiz ta arratsalde, gu ire landara joan oi gaituk jateko billa. Etzan zaarra, ba dakik, gure seme Txomin; ogeitairu urte doi-doi. Ni, ondo dakik, aspaldiko urteetan ikusi nok, Kantauri!, eure ur-gaiñez, ementxe leor-ertz inguruan, leorretik geiegi urrindu bage; beti leial eta zintzo, eure kutun, nik uste. Eta Txomin ere, neure seme laztana, eskola pizkat ikasi ondoren, bederatzi urtegaz asi zan neugaz lanean, amu ta sare kontuan. Mordoa gintzoazan etxean, eta jakaña! Atsegin jakon kresal arteko lana; bai, deiera lez eban ire altzoko bizibidea!

Utz alperreko berbak. Ez jautsat ezer kendu ez ipiñi gura, artobero usaiña nazkagarri jatak eta. Amairu urte egin joazan neugaz, irekin adiskide min. Egin eteoka egundo azpi-jokoren bat azala urratu-rik? Etxuat uste. Ik, beraz, zerk jota egin dok egin dokana? Zergaitik iruntsi daustak semea? Neure seme maite, leial ta zintzoa?

Eguren arratsaldean, bazkalduta gero, nasa barrutik atera genduan geure potintxoa ta jo genduan arkaitz osteko ur-ezpondara, betiko lekura. Naiz-ta bildurti, ta uxarka ta betuxuak izan, beti ez baiña, geienez beintzat, naiko jausi oi dituk gure eskuetan. Ortxe, arkaitz zilbor-zorrotz orren ondoan genbiltzan a ta biok egatxibitan. Auxe izan dok, ba-dakik, gure eguneroko eginkizuna egatxibiak, tximiñoiak artu. Eta onako baten, gu konturatu barik, ik bialdutako olatu mando bat gain etorri jakun, zirimol izugarriaz naste. Zinglea izanik gure potiña, laster murgildu zan urpean, gu biok be beragaz batera, urpez urpe, urriñera eroanaz.

Zorigaitz itzala, ba-dakik! Txomin gaixoak, ire sabel zakarretik urten-naiez uger egiterakoan, alboko arkatz-puntea jo eban buruaz, konorte bage geraturik... Zurrunbilloak eraginda joan nintzakoan, laguntza eskintzera; baiña orduko, ni ara orduko, «Aita, aita!» esanik urperatu jatan gaixoa. Ez neban ezer egin al izan! Ni igeri ta a urpera... Eziñaren garratza! Lertu-bearrez naukan biotza. Iru, lau, amar: bider dei egin neutsan aren, semeak ez eban urrean nire deadar-otsik entzuten. Konorte barik, illa ziur asko, ezponda barruan... Ibilli nintzoan, bada-epadan, billa, baiña alperrik. Etsita, «Agur, seme, seme maite!», esan neutsan. Ondoren: «Agur, baita, ene txibi-potin zar!». Biak ondatu jatazan osin baltz artako zurrunbilloan. Ire zintzur gosetiaren asegarri biak. Nik gero, austua, uger jo naioan, ba-dakik, mollera.

Txomin gaixoa! Ene seme leial! Aren gomutaz, ez joat aurrerantzean ire bizkar ibilli gura, arrisku ta oztopoz inguratua. Esaera zaarak diño: «Bat dagianak...» Alan be, erruki adi nitaz eta nire sendikoakaz. deure itsasoa aiz, Kantauri! Ez gagizak zurtz itxi ogi-bidean. Ez adi gurekin biotz-gogor izan. Iñoiz, damuturik, iregana biurtu ba'gagiz, ar gagizak txeraz. Ez bedi gure ortzia izar bage aurki!

Aita nok seme urpean itoarena!

EUZKADI

Bakar-izketa abes-talde ta
bakar-abeslariekin.

EUZKADI

Egal baten goi-aldean izki aundiekin:
«DANOK ANAIK GARA»

(Antzokia illun-samar; argi gorrizka-motela; mukur bat
zoko baten... erdi-ustela ta lodi-samarra...
Gernikakoaren antza dauana burdiñez inguratuta...
bea zuriz edur-antza dauala... aize-txistu zolia atean...

Mutil gazte bat sartzen da astiro... oldozkor... itunki...
alboetara begira ta begira; kaiku bat jantzitza...
txapela... narruzko abarkak oiñetakokotzat galtzerdi
lodiak lokarri baltz eta lodi-latzakin. Astiro mintzatzen
da... bata-bestera geldiro-ibilliaz).

Negua! Negu baltza! Negu otza! Negu gogorra! Edurrez zuri-zuri mendiak. Zuri-zuri aran-abarrak. Zuri-zuri etxeetako tellatuak! Zuri-zuri ibarrak. Zuri-zuri aitz-tarteak! Zuri-zuri dana. Edurrak bere jantzi zuria jarri dau danean. Otz. Ixil. Eriotz-kerizpetan dana.

Negua! Negu otz-baltza! Ixilik mendiak! Ixilik basoak. Ixilik oianak. Ixilik ibarrak. Ixilik gallurak. Ixilik aitz-tarteak. Ixilik ardi ta bildotsak. Ixilik txoriak. Ixilik dana. Neguak masamortu biurtu dau mundua. Orri orlegirik barik zugaitzak. Adarrak moztuta. Orbelak edurrez estalduta bean, lurrean. Billoizik mendiak eta basoak eta oianak eta aitz-tarteak eta gallurak. Billoizik izadi osoa.

Negua! Negu otz-baltza!

Ituntasuna da dana. Ixiltasuna. Ardien «be» motel-ituna ez da aditzen mendibarrenetan. Ezta zaldien irrintzi zolirik. Artxo txiki-alaiak ez dira ikusten pozarren jolasean. Geldi-geldi dagoz beruntz begira. Zirkiniñik egin barik. Itunez, otzez. Txori alaien txorrotxorik ez da iñon entzuten. Orma-zuloetan eta etxeetako ganbara ta tellatupeetan ostondu dira. Gosez daude zer janik gabe. Ixiltasuna, ituntasuna, bakartasuna, eriotz-kerizpeak danean. Otza.

(«Goiko mendian edurra dagozp abestuko dau
barrutik neska batek goxo-emeki.)

(Goiko mendian edurra dago,
erreka-aldian izotza.
Ni zugandik azke nago-ta
pozik daukat biotza (Bi aldiz))

Neskeak abestia bukatu ondoren mutillak darrai: Goiko mendian edurra dago, erreka aldian izotza. Izotza mendian! Izotza muñean! Izotza ibarrean! Izotza aitz-tartean! Izotza gallurretan. Izotza be-aldeetan. Izotza danean. Eta otz, otz alde orotan, otz soin-gorputzetan.

Goiko mendian edurra dago; erreka-aldian izotza. Otz goietan, otz beetan eta otz, otz aundia ainbat euzkeldunen biotzetan. Otz onek igartu egin dau gure ARBOLA, «GERNIKAKO GURE ARBOLA SANTUA». Otz onek igartu ta deuseztu egin dau bere mukurra, igartu bere adarrak, bere sustraiak. Otz onek kendu egin deutso bizitza.

Begira, begira, ona gure ARBOLA, antxiñako gure asabak ain maite izan eben ARBOLA kutuna, ARBOLA SANTUA ARBOLA ZARRA. Zarra da bai. Milla ta geiago urte ba-ditu. Euskalerriak dauan pitxirik maitagarriena da, joriena, kutunena. Bere babespean egin izan dira gure legeak. Bere babespean <->ZIN<-> egiten eben agintariak. Zaartuta dago. Il-zorian. Zaartuta! Baiña batez be aaztuta!, bere semeak aaztuta. Erriaren ainbat gertaera ta jazoera ikusi ditu bere amar gizaldi-zeac Gertaera onak eta txarrak, garaipe-

nak eta galtzeak, pozak eta tristurak. Gaur bakartadean, aaztuta, bere semeak aaztuta. Batzuk ez dabe ezagutu be egiten. Ezagutu nai be ez. Ez dabe maite.

«Negarrez ikusten zaut», abestiaren doiñuz abestuko dau neska batek barrutik darraiena astiro-goxoki. Bitartean mutilla ixilik, adi-adi beruntz begira.

Aztuta ikusten zaitut
ARBOLA maitia,
azpaldiz dozu galdu
zeure izatia;
Au biotz-miña!
Itun eta goibel da
gaur Euzkalerria.

Mutillak astiro-itunki berresango ditu
bertsook Arbolari adi-adi begira.

Gero: Zartuta! Il-zorian. Baiña batez be aaztuta. Bere semeak aaztuta. Aaztuta gure ARBOLA SANTUA! Aaztuta GERNIKAKO ARBOLA. Eta aaztuta orobat ARBOLAREN janari, gordeleku ta lurra dan EUZKADI! Aaztuta bere izena mundu zabalean otz aundiz erabilli dauan bere Aberria. Bai aaztuta EUZKADI!

Aaztuta Aberria! Eta... ulertu be ezin dot. Euskotar danok lotsatuteko da. Nazio biren menpean! Zapaldu eta sakatuta. Laidotu eta apalduta. Ostikopean! Arerio-etsaiez inguraturik. Katez loturik gure Euskadi. Bitartean bere seme asko ta asko lotan edo etsaiarekin bat eginda. Bai; gorriak ikusi dabez Gernikako Arbola Santuak eta gorriak gure Aberriak! Biek zutik ba'doguz, biek galdu ezpa'dira, Jainkoaren eskua bitarteko izan dala aitortu bear dogu.

Gizonezko batek barrutik Rusiako
doiñua dauan abesti au kantatuko dau.

Katez loturik dago Euskadi,
baiñan azkatuko da;
españatarrak nai ez arren,
laster aske izango da.

(Mutillak darrai): Bai, katez loturik. Zigortuta. Bai ARBOLA, bai EUZKADI etsaien gorrotogarrri izan dira beti. Gaur gitxiago ez. Guda-aldian gure etsaiak egindako zitalkeri, zapalketa, eriotz, basatikeri, ankerkeri ta triskantzak gogoratzea naiko. Gogora daigun batez be GERNIKA URI SANTUA erretzea. Eginkizun negar-garrri a sekula ez dau aaztuko, gure erriak. Orduantxe ikusi zan argi ta garbi gure arerioen biotz baltza, basatikeria, ankerkeria. Orduantxe euren egizko CRUZADA. Orduantxe Euzkadiganako gorroto bizia.

1937'gko. jorraitaren 26 zan. Astelena. Illeko azken astelena. Merkatu-eguna. Jendez bete-beterik, gainezka erria, Euzko-gudariak inguruetan Aberria zaintzen. Eta arerioen egazkiñak goietan kea erioela. Asmo madarikatua eben. Gernika gure URI SANTUA erre. ARBOLA SANTUA ezestu. Zenbatu-ezin ala gorputz il lurrean. Inguru guztian, bazter guztietan odola, negarra, eriotza. Etxe-mordoa lurrean. Baiña ARBOLA zutik. ARBOLA tente. Euskotarrak euren odola, euren bizia emon eben ARBOLA SANTU orren alde. Euzkadiren alde. Ilketa onek ots aundia sortu eben mundu osoan eta oial-irudi eder bat sor-erazi Pikaso margolari aundiari.

Pikasok egindako oial-irudi eder ori Ipar-Amerikan, Nueva Yorken egon zan urteetan. Miloe mordoa balio ei ditu irudi onek. Berezko zan Gernikan izandako gudak, erailketak sortu-erazi eban irudi ori bertara ekartzea. Ez ba. Madridera eroan eben. An jarri. Gernika gure Uri Santua erre ebenak eurek-eroan dabe euren etxera irudia. Orrela jokatu dabe beti gure etsaiak. Onelakoa izan da beti onein jokabidea.

Euzkadin terrorismoak agintzen dauala-ta, onelako irudi eder bat arriskuan ezin ipiñi daitekela-ta, Madridero uria gordeleku ona ta osoa izango zala-ta Españaiko uriburura eroan eben. An ez ei dau izango arriskurik. Ez eben aitatu be egin irudi ori ikustek diru mordoa ekarriko eutsela euri. Betiko parisaitarrak. Betiko guzurtiak. Euzkadin terrorismoa ta Españaen bakea. Euzkadin arriskua ta Españaen babes osoa.

(Darraiaren bertsoak abestuko ditu taldeak
«Mendiko Negararren» doiñuz.)

GURE BETIKO ETSIAIK

I

Terrorismoa asmatuta
or dabiltz txapel-okerrak,
bardin polizi ankerrak.
Gure Euzkadi zapaldu eta
betiko ondatu nai dabe,
euzkeldun danok bat einda
aurrera bildurrik gabe,
guztiok zutik JEL-alde.

III

Lege biurriak jarri,
eskubideak ukatu,
Euzkadi dabe ondatu.
Odolez daude gure mendiak,
odolez gure ibaiak,
odolez gure erriak,
odolez gure kaliak,
odolez gure etxiak.

II

Noiz arte, Jauna, noiz arte,
bizi-bear atzerripean,
noiz arte besten menpean?
Espan-agotan biraoa ta
biotzean gorrota,
eskuetan iskillua,
makilla eta aiztoa,
au dabe ebanjelioa.

IV

Zutitu danok, zutitu,
zaindu daigun Aberria,
dalako geure-geuria.
Danok bat egin eta alkartu,
zintzoki daigun jokatu,
arerioa azpiratu,
gure Euzkadi askatu,
Nortzuk garean agertu.

Negargarria! Ulertu-eziña! Gaur be gorroto bizia dabe bai Arbolaarentzat eta bai Euzkadirentzat! Gorroto bizi-aundia. Ezin esan alakoa. Gernikan eta bere Arbola Santuaren oiñetan eta babesean ontzat artutako Araudi-Estatuttoa ezin iruntzita, indarrrik gabe ta utsean itxi gura leukie. Paper-uts biurtu. Ortarako asmatu eben loapa. Telebistan, irrastian, egunerokoetan, aldizkarietan, itzaldietan edena ugari jaurti dabe gure Aberriaren aurka, gure agintarien aurka. Naizta alderdi politikoak bata-bestearen aurka ibilli euren artean, danak bat-eginda alkartu dira beti euskeldunen aurka egiteko. Basoko basurde ta piztiak lez jagi izan dira beti eragozpenak ipiñita, gure eskubideak ukatzeko. Ako Madrideko Batzartegian gudarostea jagitzea ait-zakitzak ipiñita burdinez eta katez inguratu nai dabe gure erria, ito egin gura dabe bein betiko il dedin. Auxe izan da beti euren asmo-gurari zitala. Auxe euren eginkizun lotsagarria beti. Baiña alperrik. Erria zutunik dago. Agintarian zur eta ernai daude. Onez edo txarrez erriak erantzungo dau, geldi ez da egongo. Lotan be ez.

(Illetako «Artu Zuk Jauna» abestiaren
doiñuz abestuko dabe antzokitik taldekoak
bakarlariari erantzunik.)

ASKA DAGIGUN EUZKADI.

Bakarlariak:

—1—

Lotuta dakust gure Euzkadi
atzerriean gaxoa,
danok bat eginda aska dagigun
emonaz bizi-beroa.

Taldeak:

Gora Euzkadi geurea da-ta,
Gora Euzkadi askatuta.

Bakarlariak:

—2—

Bakarlariak. Gure etsaiak beingoz nai dabe
Euzkadi dana ondatu,
Z/IV egin daigun euskaldun danok,
etsaian aurka gudatu.

—3—

Zar eta gaztek maite dagigun
Euzkadi Ama zintzoki,
bildurrik gabe joka dagigun
beraren alde gizonki.

—4—

Gu euskaldunok sakabanatu
ori nai dabe ankerrak,
geukeririk ez, batu gaitezen,
batu guztion indarrak.

— 5 —

Alderdi danen indarrak batu,
itxi alderdikeriak
danon artean burrukatzeko,
egin lenbailen bakiak.

—6—

Jaun altsu ori erruki zadi,
zuzendu gure erria,
etsai gaiztoak erail nai leuke,
betiko gure izatia.

—7—

Simeon zarra pozarren il zan,
Jesus besotan eukita,
ni be pozarren ilko nintzake
Euzkadi azke ikusita.

— 8 —

Euzkadin bizi gure dogu guk,
bake gozoan lanean;
gorrotorik ez iñorentzako,
maitetsuna barnean.

— 9 —

Goiko ortzean argia dakust
askatasuna-argia,
Aberriaren aske-eguna,
au bai zorion aundia.

—10—

Gora Euzkadi sorterri maite,
neure ametsen pozgarri,
izan zu beti bizitz-bidean
nire zorunen iturri.

Mutillak: Bai oraindik lotuta gure Euzkadi, baiña menderatuta ez. Ba-da oraindik odola errian. Zigorrak, espetxeak, eriotzak ez dau bildurtuko euzkotarra. Bere Aberria askatzea erabagi dau ta gogor eta kementsu ekingo dau bildurrik barik.

(Telesforo Monzonen «Lepoan artu ta segi aurrera» abestu bei taldeak.)

La, lara,
la, lara, la-la, lala-ra
lepoan artu ta segi aurrera (bis)
Gazte bat lurtean arkitu dugu,
lore gorritz beterik kolkoa,
burdiñen artetik iesi datar,
euzkal gaztediaren oiua.
Mutillak, eskuak elkar gurutza,
ekin ta bultza
denok batera,
bidean anaia erortzen ba'zaik,
lepoan artu ta segi aurrera.
La, lara.....
lepoan artu ta segi aurrera. (bis)

Ez dugu beldurrik,
ez dugu lotsarik,
nor geran,
zer geran
aitortzeko.
Ez gaituk lapurrak,
ez eta txakurrak,
kataiaz loturik ibiltzeko.
Gizonak ba'gera,
jo zangun aurrera,
gure erriaren jabe egin arte,
Askatasunaren egal azpian
kabia egiten oituak gare,
ibiltzen aspaldi ikasia dugu
otsoak eskutik artu gabe.

La-lara
lepoan artu... (bis)

Arrotzek espataz il nai ba'naute
izituko gaiztuztelakoan,
zuitu ta euskeraz mintzatuko naiz
nere iltzallearen aurrean.
Mutillak ez gero nigarrrik egin,
erortzen ba'naiz
gau illunean,
izar berri bat piztutzeroa,
Euskalerriko zeru-gaiñean. (Iru aldiz)

Mutillak: Ta onela amaitzen dogu lenengo zatia. Lenengo zatiaren bukaeran eta zapiari beruntz eragi-
ñik, antzokia estaltzean eta atsedeen-aldian, bigarren zatiari asiera emon aurretik entzuleok oldozkor eta ixi-
llean zeuon zoko-barrean Gernikako Arbolaren negu itun-baltz au ausnartu egizue abesti itun batzuk
entzuten dozuezararik. Alan be entzuleen-tartekoak nai dabenek parte artu leikie taldearekin abestietan.

OÑAZEZ

(Neska batek abestuko dau antzokia estalduta dagoen bitartean.)

Aldi baten gure Ama,
Aberri maitagarria,
semeok genkuzan edur
baria baizen garbia.
Orain osteria itxazi iako
arrotzen dongakeria.
Au tamal mingotza,
au oñaze latza,
orbandu dala Aberria.

(«Mendiko negarra». Arana-Goirirena.
Taldeak)

Ene Aberri laztana,
jausi zara erbestepian,
obia eriotza da.

Zeure besotik
atzo igoten zan
eskari ona zerura,
gaur erdeldunak sartuta
axia emen birauz bete da
Zelan ondiño il etzara?

Askatasun-eguzkia. TALDEAK

Askatasun-eguzkia
jun iaku Euzkadietik,
bere biziko gaitz-miñak
illarekin eldurik.

Illargirik ez da ortzean,
ezta be izar-izpirik;
ilunpetan Aberria,
dan-dana galdurik.

BETI PENETAN

Neska batek

Beti penetan, beti penetan
bizi naiz mundu onetan.
Egunez zerbait alegatzen naiz,
gabaz beti penetan.
Zureganako amodiua
juan zitzaidan batetan.

(«Lenago il», Arana-Goirirena.
Taldeak.)

Ze ikusten dabe
nire begijok,
au danau dakust
galdata.
Berezi, baso,
muru ta mendj,
uri, baserri
ta dana

gaur maketuak,
saloberiok,
ara birrindu
dabela,
il naiago dot
ikusi baño
Aberriaren
amaia.

OTSEÑA ZARA

(Abots zolidun gizonaeko batek.)

Zorijona,
zeure laguna zan,
zeure lagien aldian.
noiz nai
Zeure buruban
jauna ziñan;
gatxa zer dan etzenkijan.
Itxurik

zeuk arrotza onetsi baña
ta emon zeutson bijotza.
Ordutik ona
otseña zara.
Jabia dozu
España.

ENE AMA

(«Ikusten dozu goizean» doiñuz taldeak.)

Bixi ezta
ludi guztijan
Ene Ama
Baxen ederra baña ez
ain gaxua.

Guztiz ederra
bera delako,
erbestepian jausi da.
Ara bada

sortu dituzan
semiok ba
bere bizitza kentzen
dautsoela.

NEGARREZ IKUSTEN ZAUT

(Arana-Goirirena. Neska batek goxoro-
astiro.)

Negarrez ikusten zaut
ene Aberria,
zeure umiak zaitube
ondatu guztia.
Ai ene Ama.
Ara non dakartzudan
zeuretzat bizia.

EUZKOTARRAK GARA

(Arana-Goirirena. Taldeak abestuko
dau gogotsu ta zaratatsu.)

Euzkotarrak, euzkotarrak gara;
bizi beiz Jaungoikua eta Lagi Zarri.

Ezkara espainarrak,
ez arrotzaliak,
ez maketuen edo
motzen aizkidiak;
Geure Ama danaren
geu gara semiak
bere Euzkadi dala
geu gara beriak.

Euzkotarrak, euzkotarrak gara;
Bizi beiz Jaun-goikua eta Lagi Zarra.

(Antzokia alai... bizi... argiz... Arbola
Zarraren ondoan beste gazte bat orri
orlegiz; aldamenean lorak... gorriak
zuriak... orlegiak.)

(Mutil gaztea len lez jantzita ta
alboetara adi-adi begiraturaz eta irri-
barrez.)

Udabarria! Udabarria! Udabarria!

(Taldeak darraiena abestuko dau
barrutik «Jagi-Jagi» eresiarene doñuz.
Bitartean mutilla ixilik, adi-adi.)

Eldu iaku Udabarri,
Udabarri goxoa.
Udabarri goxoa.
Negu otza aiendu da
eta agertu beroa;
alai ta lirain orlegiz
jantzi izadi osoa,
jantzi izadi osoa.

(Mutillak gora begira ta astiro-astiro
berresango ditu bertsook.)

(Gero darrai): Udabarriaren arpegi gozoa! Udabarriaren emaitz ugari-onurakorrak! Gogoa poztu, nasaitu, adoretu ta indartu egiten dau.

Udabarria! Zugatzak orriz iantzita... loran... amariak... ermetzen... Begira... begira... Zugatz harria... Zarraren semea. Zugatz harria! Zarraren semea. Zugatz gazte-sendoa... orri ederrez jantzita... besoak zabalik... adarrak eskeintzen... Begira... Begira... Zugatz Barria! Zarraren semea! Bizitza barria. Semeak aitaren jarraia izan oi dira. Aitaren bizitza. Aitaren odola dago semeetan. Bere bizitza. Bere izatea.

Zugatz barri! Zarraren seme zara, bere jarraia. Zugatz barri! Agur, agur biotzez. Zure Aita zara da. il-zorian dago... baiña zu geratzen zara gurekin... gure pozerako... gure onerako... gure zorionerako... gure itzaropenerako...

Zugatz Barri! Zabaldu ta luzatu zure besoak, zure adarrak eta zure magalpean zure babespean EUZKADI osoa artu, zure euskotar kerizpean batu guztiak. Zugatz Barri! Zure kerizpe gozoak poztuko gaitu, zuk indartuko gure biotzak. Euskotar anaiak! Argia ba-dator. Poztu gaitezen. Gure etsai-arerioak ez dira gelditako. Orain arte lez burruka gogorra egingo deuskue. Gure Aberria puskatzeko alegiñak egingo dabez. Gure Aberria zulatu ta ondatu nairik ibilliko dira. Zugatz Barri! Zure oroiak adoretuko al'ditu zure semeak etsaiaren aurka gogor egiteko. Etsai-arerioak azpiratzeko.

Anaiak! Euskotar anaiak: zeuontzat artu Sabinen bertsook:

Didar bat aditu da
Geure mendietan,
Itxal da baigabia,
Aitor'en izketan.

Itxartu euzkeldunok,
Esan dau didarrak,
Itxartu entzutera
Asaben negarrak!

Eta beste bereok.

Eder-ederra zara,
geure aberria,
ta edertasun ori
geuretzat egin da.

Ezaindu gura bazauz
erbesteren batek,
jaso goiko iturrirantz
zeure begi orrek.

(Eta bereala beste itzik gabe taldeak
darraiena abestuko dau,. Arana-
Goirirena au be.)

ITXARKUNDIA

Azkatasun-eguzkia
basotik urten da,
bere argia edonun
arin zabaltzen da.

Itxartu zaiz euzkotaiak,
aupa euzkeldun guztiak,
gora, gora antxiñako legiak.

(Eta beingoiz taldeak Israelko kanta
dan. Geurea da.. ta Euskalerrria.
Beingoiz taldeak.

Euzko gudariak gara
Euzkadi askatzeko,
gerturik daukagu odola
bere alde emoteko.

Irrintzi bat entzun da
mendi-tontorrian,
guazen gudari danok
ikurriñan atzian.

Eta beingoiz taldeak:

Aberri lastana,
zu ikusitzean
zerbait aditzen dot
ene biotzean.
Agur zelai ta mendi,
ibai ta bazterrak,
euzkotarren biztoki
alai ta politak.

Gora Euzkalerrria,
erririk onena,
euzkotarren biztoki
eder-maiteena.
Agur Euzkalerrria,
zaukadaz biotzian,
etzaitut nik aztuko
bitzita guztian.

URRUNDIK

(Elizanbururena)

Urrundik ikusten dut, ikusten mendia,
beraren gibelean bai dut nik erria;
jadanik dut aditzen, zorion aundia!,
ezkilla maitearen asperen ezta.

Landako langillea, artzai mendikoa,
iturriko bidean doan neskatoa;
aditurik ezkilla, ire poz goxoa,
otoizten ari dituk Ama Zerukoa.

Mutilak Oi Euzkalerriko mendiak. Mendi joriak. Mendi zoragarriak. Mendi aberatzak. Zugatzez eta urez inguratuak. Pozarren eta gogo-gogoz agurtzen ditut Euskadiko baso ta zelaiak, muiño ta mendiak, oian eta ibarrak. Euskadiko mendiak! Zoragarriak zare. Sorgiñak lez zarie euskeldunen biotza zue-
nekanatzeko. Indarra, lillura ta ametsa esnatzen dozue euzkotarren biotzean. Olerkia daukazue
abertzalearen biotza irabazteko.

Pozarren gogoratzen eta agurtzen ditut une ontan Euskadiko mendiak! Aberriaren leioa. Aberriaren
begiak zarie zuek. Aberriaren esnale.

Aratz, Altube, Arlaban, Azkueta, Aia, Ollargan, Santikurutz, Allarte, Opakua, Txarlazo, Atzabal, Baio,
Kruzeta, Askiola, Gobeta, Azazeta, Oro, Toloño, Mota eta Soituri Araban beste askoren artean.

Alluitz, Anbot, Artaun, Aramotz, Bizkargi, Ganekogorta, Ganguren, Pagasarri, Illuntza, Mandoila,
Lekanda, Ziburur, Intxorta, Mugarraitz, Kalamua, Sabigain, Oiz, Upo, Orduña, Areitio, Ganzabal,
Unbe, Serantes, Ereñotzar, Ogoño, Urkiola, Jata, Sollube, beste ain baten artean, Bizkaian.

Aitzkorri, Galdonamendi, Artia, Golda, Andutz, Kurutzeberri, Karajate, Egoarbitze, Jaizkibel, Uda-
laitz, Urepel, Akondia, Elosu, Urko, Lizarruzti, Oleta, Txindoki, Galdaramiño, Askonabieta, Urgull, Pa-
goeta, Etxegarate, Itziar, Ernio, Irimo, Igeldo, eta Ulia beste askoren artean Gipuzkoan.

Abodi, Aiztondo, Belagua, Arangoiti, Oria, Auza, Andia, Urbasa, Aralar, Murube, Irati, Ibañeta, Azpi-
roz, Belate, Lizarraga, Arrie, Erre, Kodes, Etxaurri, Orreaga, Astobizkar, Otsondo, Usategieta, Artiku-
tza, Ori, Iruerregen-maia, Ezkaerri, Irumearrieta, Orba, Adi, Naparroan beste askoren artean.

Eta Naparroan bertan Prantziren menpean dagoan be aldean oneik beste ainbaten artean: Okabe,
Mendibete, Arrizuri, Urkulu, Leizar, Uedoizburu, Ostegi, Lindux, Izterbegi, Argarai, Mendimotz, Mun-
hoa, Izpegi ta Kakueta.

Lexa, Benbiletta, Lakora, Legorre, Iguntza, Negumendi, Etxeleku, Bizkartsu, Salagaña, Eskaleak,
Olatze, Ziñiga, Zuberoan beste askoren artean.

Lapurdik be ba-ditu mendi politikak naizta aundiak izan ez. Mandorrain eta Iñazio deunaren aldatza,
Larrun, Xixibai, ta bar.

Euskadiko Mendiak: Agur biotzez

Eta biotzetiko agurra orobat Euskadiko ibai-errekai. Euskadiko ibaiak! Gure lurra busti eta aberastu-
tzen daben ibai-errekak! Garbiak, gardenak, eta aberatsak antxiña; loiak, zikinak eta ain aberatsak
ez gaur egunean.

Arro-arro ta garbi-gardenak jazten ziran lenago mendi-baso, zelai, muiño ta solo barrenetatik-zear gure ibarretara azkenik itxaso-barruan betiko galtzeko.

Garbiak ezeze aberatsak be ba-ziran gure ibai-errekak

Danetariko arraintxoak eukezan eta pozarren eta nasai ikusten ziran gure gizonak euretan arraintzan. Kaskalluak, sarboak, angillak, arrankariak, kangrejoak, eta abar. Eureka ta millaka gizon ebiltren batez be igande ta jai-egunetan ertzetan edo uretan bai sareakin, bai amuekin. Ura garbia zan, garden-gardena, ezertariko loikeririk bakoa; arraiñak barriz ugari-ugari.

Gaiñera ez euken ezertariko eragozpenik arraintzan egiteko. Askatasun osoa euken. Gaur lantegiak jaso dabez euren inguruetan urak zikindurik eta arraiñak gitxiturik. Alan be, ederrak, maitagarriak zarie ibai-errekok euskeldunontzat. Amaika ordu pozgarri izaten dabez gure gizonak zuen ondoan busti-aldiak egin eta arraiñak artzeko. Biotzez agurtzen zaituegu une ontan Euskadiko ibai-errekok! Danontzat da gure agurra. Danak zarie gure erriaren pozgarri ta aberastasun iturri.

Agur Gipuzkoako ibai-errekak! Urola, Oriá, Deba, Oiartzun, Ego, Zelai, Besabeko, Alzama, Alzola, Oiñate, Mutiloa, Estondo, Leizaran, Araxes, Ursuaran eta abar.

Agur Bizkaiko ibai-errekak! Butron, Nerbion, Ibaizabal, Kadagua, Artibai, Mundaka, Somorrostro, Orobio, Oka, Mañaria, Indusi, Gemika, Babardun, Zeberio, Urkiola, Arratia, Goloko, Lea.

Agur Nafarroako ibai-errekak! Arga, Irati, Ezkurra, Latsa, Elama, Ulzama, Aura, Zia, Basaburu, Arakil, Juscapiña, Burunda, Bidasoa, Erre, Biurdana eta abar.

Agur Arabako ibai-errekak! Ega, Zadorra, Baias, Araia, Izalde, Altube, Oiuda, Zubialde.

Agur Euskadiko Ipar aldekoibai-errekak! Adur, Nibe, Nibelle, Gabe, Biduze eta abar.

Euskadiko ibai-errekak, ekin, ekin orain arte lez gure lurra busti ta aberastutzen. Gure erriaren poz eta aberastasun eta aurrerapide-iturri zarie. Maite-maite zaituegu. Mundu guztiko ibai ta erreka guztien artean zuek guretzat euskeldunontzat maiteenak.

Gora Euzkadiko mendiak!

Gora Euzkadiko ibai-errekak!

(Ondoren sei neska gazte sartzen dira bata-bestearen atzetik antzokira. Batek Bizkaia, beste batek Araba, beste batek Nafarroa, beste batek Gipuzkoa, beste batek Lapurdi ta beste batek Zuberoa itza eukiko dabe paparrean izki aundiekín.

Seirak erdian erriari begira: geldi ta ixilik.)

(Mutilla mintzo) Bizkaia! Araba! Gipuzkoa! Nafarroa! Lapurdi! Zuberoa! Seirak aitzak, Ama baten alabak. Udabarri eder-zoragarri ontan euren batasuna, alkartasuna, alkarganako maitasuna agertze-ra etorri dira. Ta ementxe Zugatz bion aurrean agertu nai izan dabe batasun au, alkartasun au, Gure erriaren udabarria, pizkundera. Poztu anaiok, gora biotzak. Negua ioan da, laiño baltzak aiendu ta estaldu. Udabarria!

Anaitasun pozgarri ontan Arrese-Beitia gure olerkari aundiarekin esan dagigun:

Aztu daiguzan gure artean
izan diran aserreak,
izan gaitzean anaiok eta
euskeldun zintzo-garbiak.
Betor guraso zarren fedea,
betoz asaben legeak,
bere negarrak leortu daizan
ni jαιο nintzan erriak.

Bai, bai, bai batasuna, alkartasuna. Ez bedi sortu guban eztabaidarik, gorrotorik, banakuntzarik. Danok bat: danok bat, danok anaiak.

Batasuna! Maitasuna! Anaitasuna!

GERNIKAKO ARBOLA. ZARRA TA GAZTEA! Biotzez agurtzen zaitugu. Zu zara gure erriaren udabarra, bere indarra, bere euspena, bere itxaropena.

GERNIKAKO ARBOLA! ZARRA TA GAZTEA! Arbola Santua. Piztu ta sutu egizuz euskeldunen biotzak. Otzak artuta daukaz aspaldi baten askorenak. Berotu ta sutu egizuz.

GERNIKAKO ARBOLA... ARBOLA SANTUA! Zaindu, zaindu zure magalpean, zure babespean Euskalerrria!

AITONAK ILLOBARI

(Urte-dun gizonetako batek abestu bei.)

Neure semien-eme,
neure illoba laztana,
ez eik aaztu aitonak
irakasten dauskana.

Gora Euzkadi
bizi bedi,
gora Sabino
Arana-Goiri;
Jaingoikoa
Lege Zarrak

Mutillak: Geureak dagiguz orain eta beti ta mundu osoaren aurrean eta gogotsu, adoretzu, kementsu ta bildurrik barik, Sabin Arana-Goiriren itzok: EUZKOTARREN ABERRIA EUZKADI DA.

(Danak zutik Gernikako Arbola abestuko dabe.
Nai ba'da, dantzariak eta txistulariak sartu daitezke eta Guridiren
Ezpata-dantza egin.)

(Euzko Abendaren Ereserkia abestuz bukatuko da.)

Zapia bera

BERTSO PAPERAK

J. M.^a Etxebarriak bildu eta prestatuta

1. Auteskunde bertso paperak

Auteskunde garaia laister etorriko zaigu. Antolaketan sartu dira politikariak, legez ez, baina benetan bai. Hona hemen auteskunde garaiko bertso paper batzuk.

Markiñako distritoan. Bertso berriak

1

Milla zortzireun larogei eta amaseigarren urtian
Martinez Rodas gure errira
etorri zan egunian
bazkari on bat ipiñi zeben
ostatuz Antonionian
komisiñau ta ajentientzat
martiaren zortzian. (sic)

2

Disponi zuten euren artean
beste batzar bat eiteko
jaube ta patroï danak batera
Rodasi botu emoteko
kontentu ziran batzar orrekin
Rodasen komisionatuak
sinistu zuten izango zi(r)ala
eurentzat emen botuak.

3

Esperantza ori artuta gero
ipiñi zuen aparian
patroï ta jaube batzarrekuak
firmatzen izan zirian
gero ajente izatekuak
ziraden deklaratuak
kalerik kale abiatzeko
batu deitezen botuak.

4

Rodastar oyek etzuten uste
eurak aña izaterik,
zeben diruaz eta indarrez
zeuzan danak arroturik
arrokeria eta indarra
errez dira sosegatzen
kontrariuak asi ezkeru
eurak lez biar egiten.

5

Asi ziraden kontrariuak
martiaren amarrian
genterik gabe botuak billa
Aznarrentzako ustian,
borondatia zeukatenari
eskatzen giñon firmia
egun bietan berreun pasau
konformau izan zirian.

6

Ikusiarren diferentzi au
egun batetik bestera
alaz guztiz be egiten zigun
burla ta parre aukera
irabaztia seguru zeuken
kontatuak izan balitza
baña Aznarrek kenduko dio
Rodasi diputatutza.

7

Lore eder bat etorri jaku
Aznar Bizkaiko semea
Rodas jaun ori kentzeko emendik
Kastillanuen artera,
pelean dira alkarren kontra
aurten diputau izatera
bederatzireun ta ogetamarraz
Aznarrek bentaja atera.

6

Bentaja ori ez zuten uste
Rodasi ateratzia
orregatikan esaten dabe
pasauko zata faltzia
berreun boto Ondarruatik
bentajiaz urtetzia
Rodasi emen esan zioten,
ta artzeko konfiantzia

9

Ez dira berreun ez eta eun,
dira berro(g)etamazazpi
gose guziak kendu diotez
Ondarruan Aznarreri
bederatzireun ta ogetamar
dira kenduak Rodasi,
distritu ontan emongo'tzaguz
konsueluak Aznarri. (sic)

10

Ez degu biar kastillanorik
gure Bizkaiko lurretan
baizik Bilboko seme maitiak
dakienak gobernetan
biotz nobleko bilbotar maite
Aznar eta konpañia
ez gu(g)az aztu zergaitik degun
sari zuen premiñia.

11

Agur zu Rodas urrengo arte
bizi zaitezte pakian
dirurik asko zabaldu dezu
zedorrenzako kaltian
oba zenduen ezpaziñate
metitu orren artian (sic)
ezin zeinke izan diputau emen
Bilboko semien artian.

12

Don Eduardo Aznar da gure
diputadu kortekua,
lagundutzeko gure premiñan
sortu zeran gurasua
deseos giñan zu ikusteko
distritu Markiñakuan
eta aurrera ezagutzeko
errazoia dan moduan.

Bertso hauen gaia argi dago: auteskundeak dira. 1896an eginak dira.

Zortziko nagusian daude. Egilea ez dugu ezagutzen baina ingurukoa dela esango nuke. Bertsolari herritarra da, eskola gehiegirik gabe, eta tartean hutsen bat ere egiten duena.

Idazkera hutsak zuzendu ditut, baina egilearen hitz guztiak errespetatuz. Eibarren P. Orueren imprimategian atera zuten bertso paper hau.

*Bertso Berriak. Markiñako distrituan eindako komediak***1**

Bertso berri batzuek
nai nituke jarri,
Ondarruko gentian
alabantzagarri
batzuek kontra eitia
dezute merezi,
urrenguan obeto
ein dezazun segi.

2

Diputatuak eiteko
euan ordenia
ta ikusi da emen
komeri aundia
Rodasen kontra jarri
da Aznar aundia
ta etzakue akordau
nola ein zan mollia

3

Moilla bat konsegitu
zuen Ondarruan,
zain egondutakua
denpora askuan
Rodasek berbai eiñik
gogor kongresuan,
alako gizonikan
ez dago munduan.

4

Botaziua ein zan
illan amabian
maketuak jarrita
Aznarren guardian
Somorrostrotik ekarri
enpeño andian
gogor egin dezaten
estutzen ba ziran.

5

Goguan izan zazu
Ondarruko erria
zeñek egin dizun
zeuri mesedia
Rodasek ikusi balu
Allenden idia
ezan konsegituko
eiterik moillia

6

Allende euki dezu
denpora luzian
beti egondu zera
esperantza andian
Gizona ezautzen da
ederki lanian,
Rodasek lana ein du
kongreso aldian.

7

Jaun au mesede ein da
eske mesedia
beste bat defenditzen
asi da gendia
esanaz auxe degu
Bizkaiko semia
zabaldu dezan onek
papel eo urria.

8

Lengo urte batian
ein zan banketia
d'antxe akordatu zan
seme nombraztia
gañera laztanka eiñik
an despedidia
andia da oinguan
oni kontra eitia.

9

Bata semia bazan
emen Bizkaikua
bestia Ondarruan
zuten nombratua
ta onek zuen orrekin
arrazoi justua
ta onen kontra jarri oin
salduta burua.

10

Tunikadunak emen
dute maioria
zergatikan daguen
mariñel gentia
zazpiri kosta zaio
preso egotia
t'erakutsi diote
Durangoko erria.

II

Amaikagarrenakin
eitet despedida,
ezin leike kontatu
istoria guzia
papel baten jartzeko
oso da aundia
t'urrenak jarriko du
onezaz bestia

RODAS ETA AZNAR

Ondarruko Bertso Berriak (1896)

1

Milla zortzireun ta laroitamar
seigarreneko urtian
dibersio bat paratu nai det
gazte guzien artian,
botaziuak euki ditugu
Ondarruako partian
nai dutenian ez dute egin
arrantzalien artian

2

Amaika bada ate ondora
botuen billa etorri
opiniuak guri kendu ta
bueltatziarren Aznarri
orrelakorik egiterikan
etzan tokatzen Rodasi
fiñak zein diran erri (sic)
aurten ditu ikusi (sic)

3

Gizon bateri botuen gatik
agindu batel berria,
kafian bertan artu zioten
bela barrien neurria
suskriziuari batzen asi ta
gelditu dira erdira
Pio errekin pasatu dute
izugarritzko feria.

4

Domeka orretan diru eskeintzen
oyek or ziraden asi,
Matias orrek zertan zebiltzan
laister zituen ikusi
albora jua zan itzezin naita
orri etzioten utzi
erritik orla ibiltzerikan
orrek etzuan merezi.

5

Egun orretan begien bistan
askok ikusitakua
gizon bateri nola eskeintzen
asi ziraden dirua
aurreragorik zabaldu zuten
kalietara bandua
ordenarikan etzala izango
eskeinherikan dirua

6

Zuek bertsuak paratuzeko
Aznar zala bizkainua
seguru asko ba dakigu guk
dana ori kastillanua
orain lau urte Rodas daukagu
mesede egindakua,
mariñelari tokatuzten zan
jaun orrentzako botua.

7

Txaketa beltza alkondara plantxa
zigarro puro ta guzi,
gizon eder bat baporengana
juaten zuten ikusi,
Rodas jauna zala aditu ta
asi ornen zan igesi
kafe batera sartu ornen zan
bolandera eta guzi

6

Ainbeste urtian egondu gera
molla batzuen eskian,
esan bezela logratu eta
or ari dira lanian,
Rodas jaunaren erregalua
or daukagu ondarran
gizon batzuek ori salduta
dabilta beste aldian

9

Foral batzuek amarratutzen
Otxana ziraden asi
faltso batzuek parte emanda
au ere degu ikusi.
Kulparik bape ez genduela
juezak zuen ikusi (sic)
berak artu ta eramatia
oyek badute merezi.

10

Zer izaten dan badakigu guk
diputadu egitea
adituakin entera zaite
kontra zeraten jentia
andiagua dana ba dakit
Bizkaiko senadoria
gizonarentzat onrik onena
mantxarik gabe jartzia.

11

Bilbo aldian irabazi du
tranparik gabe legian
ez gera asko ikaratuko
kantatzen zuen aurrian
maketo asko jarriagaitik
Aznarrek bere guardian
Martinez Rodas paratu dute
Sendadoreztat kortian.

12

Gizon batzuek ibiltzen dira
bide askotxo pasatzen,
beste batzuek egoten dira
burutik ondo pentsatzen
Bilbo orretan erreza etzen
senadoreztat logratzen
Rodas nagusi jarriko zanik
etzuten oyek pentsatzen.

13

Gizon andia egiteko ere
diruak beti balio
Rodas orrekin orregatikan
izaten giñan gu fio
len daduzkan graduak ere (sic)
orain gora zaizka iyo
nai ezagatik Aznarri ere
berak aginduko dio.

14

Amalau bertso jarri ditugu
oso onradamentian
gauza txarrikan esan gabarik
tokatutzen dan legian
Aznar orrekin konpondu zaite
zuek nai dezuen legian (sic)
gu Rodasekin egongo gera
beti bezela firmian.

Bertso paper bi hauek autagaien arteko eta bataren eta bestearen jarraitzaileen arteko gora beherak kontatzen dituzte. Batek fetxa du, 1896, eta bestea ere garai horretakoa izango da. Lehenengoa zortziko txikian dago. «Bertso berri batzuek» hitzez hasten dana, Eibarren Pedro Orueren imprimategian argitaratu zuten. Bigarrenaren kopia bat erabili dut eta honek ez zuen ezer jartzen, baina antzera argitaratua izango da, bildu zuenak, horrelako bertso paper batzuk zituelako. Eta beste batzuetan kopiak eskuz eginda jasotzen zituelako.

Azken hau zortziko nagusian dago eta huts batzuk ere baditu. Bigarren estrofan errez konpondu daitezke. «Erri onetan» jarrita eta «aurten ditugu ikusi». Baliteke oker kopiatzea ere, eta 13. estrofan konponketa erreza dago. Eta 14. nean dagoen potoa ere errez zuzendu daitekena da.

2. FRANTZIARI

Bertsu Berriak — France

Airea: Eta krichkiftn eta krichkutun...

1

Eskual-herri chokotik nauzu, orai hasia kantari
Agur eder baten iteko Frantzia Erresumari

Mila goraintzi
Derautzut zuri
Chuti zaite etsaiari

Lehoina bethi nausitu da buruz buru tigreaki.

Lenen maite egik beti
eure Jaungoikoa,
eta onen urrengo
Euzkadi gure Ama.

2

Hogoi garren mendean gira, nik bada erran beharra
Amodioz maite duguna, dugu Frantzia bakharra

Gure bandera
Zirade gora
Izan ondoan behera

Italia'ta Alemania orai garrhaituak dira.

3

Amets baten pare mundua, zer gauza miresgarria
Alegrentziaren ondotik, nigarrez da iturria

Mundu berria
Dago jarria
Zer gauza izigarria

Gerla gainetik egitea, nola airean choria.

4

Adam eta Eben denboran, jada hasi ziren gerlan
Guduek Jesus zarri zuten, kurutz fikaturikan

Martir hilikan
Kurutzefikan
Pairatu guregaitikan

Hala sofritu duenik ez da munduan gizonikan.

5

Verzengetori haundia zen gure lehen gerlaria
Bere tropekilar atakatu zaraunkun Italia
 Errom' hiria
 Hartu guzia
 Bai erresuma haundia
Holako Frantsesak merezi, duke segur aipatzia

6

Hunen ondotik Sesar hasi zeraunkun Italiatik
Verzengetorik ihardetsi, baitzerakon Frantziatik
 Gerla gogotik
 Eginagatik
 Ez izan bitoriarik
Verzengetori errendatu jatekoak finiturik.

7

Verzengetori hoi Cesarrek, sei urtez preso alchatu
Zazpi garrenian Italian, berek baitzuten garbitu
 Bulogna deitu
 Hirian duzu
 Haren potreta harritsu
Ohore bat zor diokegu, baitzen Frantses kuraietsu.

8

Gerla haundienak dituzu, Eskuaraz kopiatuak
Aipatzea merezi duke, gure Jeanne d'Arc gaichuak
 Etsai gachtuak
 Hemen sartuak
 Harek ditu kasatuak
Zeruko lorian kontserba dezala gure Jainkuak.

9

Ehun urtez pasaturikan, bataila izigarria
Mila lau ehun berroitahama-hiruan finitzia
 Biba Frantzia
 Chutitu zia
 Jeann d'Arc salbatzailia
Zuk egin obrek merezi dute pagatua izaitea.

10

Burrego batek Jean' d'Arc zuen erretzerat kondenatu
Ruaneke plazan martir gaichoa sutan baitzen finitu
 Bihotza laztu
 Pena dut hartu
 Harek baikitu salbatu.
Zeruetan izan dadila, sekulakotz haren lekhu.

11

Luzegi izan laiteke gauza guzien aipatzea
 Famatuenak hemen dira, bat Napoleon handia
 Hau gerlaría
 Izigarria
 Zen lehoína iduria
 Berroit-zortzi orenez izan zen Europako nausia.

12

Hunen ondotik hartu zuen, Rusiako bidia
 Bai eta ere bildu izan Mozku deitu hirira
 Dena erria
 Hatchemaitia
 Zer gauza izigarria
 Goseak obligatu baitzuen gibelerat itia.

13

Hameka urte gerlen buruan, Napoleon tronpatu
 Waterloko batailan zuten, Angelesekin preso hartu
 Saint-Heiene deitu
 Izlan egotu
 Sei urthez zuen sofritu
 Han hiltzen bainan Frantziarentzat hark inahalak intu.

14

Hemeretzi ehun eta hamaiaugarren urtia
 Aleman horrekin egin, ginuen gerla handia
 Bainan Frantzia
 Paregabia
 Izan tzen haren nausia.
 Uste izan-gatik ginela, haren aldian ttipiak.

15

Verduneko ifernua zen, orhoit garri guretako
 Alemanek billeta aaldu zuten Parisen sartzeko
 Etcherateko
 Bidia hartzeko
 Ez kapable kurrizkeko
 Frantsesen kontra galduren dute buruz buru hasteko.

16

Hemeretzi ehun eta hoitemeretzigarrena
 Hitler Alemaniatic, kolpeka hasi zaukuna
 Mundua dena
 Nahi zuena
 Gosta zerako iazoina
 Haren erresuma izan da, munduko chehatuena.

17

Rusiatik ethorri zaion. Eztalinen beltzuria
Haren aitzinian etchian sartu, nola zilhuan hacheria
Ihiztaria
Paregabia
Hitlerren adichikidia
Angeles eta Amerikanuak aldiz tinbalariak.

18

Gure Frantzia beira zazu, othoi Zeruko Jainkoa
Jenden artian izan dadien, bethi bakhe saildua
Gerlako sua
Da ifernua
Han dantzan dabil deabrua
Hartarik salba dadiela, Frantses populu gaichua.

FIN

DUHALDE - ITXASSOU

Egiela Duhalde da. Bertso paper honetan «Itxassou» jartzen du jarraian. Izenik ez du jartzen baina, Noël da seguraski. Honelako izena jartzen du beste bertso paper batzuetan eta hau eta beste haiek paper mota berdinekoak dira. 1993ko Karmelen aterako dira bertso paper horiek. Frantziaren historiako guda batzuk aipatzen ditu. P. J. ARISTORENAK *Nafarroako bertsolaritza* liburuan 221. orrialdean aipatzen du bertsolari hau.

3. EUSKALERRIARI GUDAN

Askatasun Bidia

1

Milla ta bederatzireun eta
ogeta amaseiko urtia
Garagarrillen amazortzia
egun ikaragarria
Lokarrietan sartu euskuna
geure euskaldun erria
zauritu eta baita erre be
Gernikan geure arbolia
negarrez dago ama Euzkadi
ez al da lotsagarria

2

Jaungoikoaren baimenarekin
nai neuke adierazo
Euzkalerrian nola daukagun
jente okerrikan asko
Izkillu eta bindiarekin
nai dabe goraño jaso
eta txiroak egon gaitezen
euren menpian beti lo
orregaitikan ekarri deusku
tramankulurikan asko (sic)

3

Asieratik esaten eben
katolikuak zirala
eta langille guztiak nola
masoituta dagozala
Esango deusut argi ta garbi
jendiak jakin dezala
Kurutz aundi bat bularrian ta
eskuan bonba duela
Durango eleiza apaiz da guzti
beurak birrindu dutela

4

Kurutze deuna oinperatu ta
egin deuskue zapaldu
Aitzol zintzua ludi ontatik
egin deuskue bialdu
emakumiai ulia moztu
egin daitezen lotsatu
apaiz guztiak bizia kendu
ori ez al da pekatu
egunen baten Jaunak zerutik
ingo zaituez zigortu.

5

Deungakeriak egin dituez
Euzkalerrian ugari
aaizkille orrek nortzuk diraden
graintxen diraz agiri
txapel gorriak borlakin jarri
Naparrutikan etorri
karlista orrek lenago ere
saldu euskuen Euzkadi
rekete zikin oyek Ebrorantz
bidalduko 'guz emendik.

6

Zaldigañeko aeroplano
tankiak datoz ugari
izkilludunak zer esanik ez
naikua diraz agiri
euzko gudari mutil zintzuek
eukirik begiak zoli
an doiiaz zintzo mendi gañera
esanaz aurrera beti
ama bakarra geuria da ta
askatu daigun Euzkadi.

7

Ditadurako jente okerrak
egindako batzarrakin
falangista ta alemandarrak
alkartu diraz eurakin
Italiano makarroi zale
portuges zikiña berdin
danak batera etorri diraz
da sartu diraz Euzkadin
Sabin maitiak zerutik lagun
aterako dituz arin

6

Euzko gudari euzko langille
ez gaitzean atzeratu
Euzkalerrian kendu euskuna
atzera ein daigun lortu,
Lapurrak ere bere zigorriak
tribunalian baditu
Sabin zintzua goi orretatik
gugan etzaitzte aztu
kendutakua eman ezkeru
guk besterikan nai eztu (u).

9

Mutillak ilten ez da besterik
au da gauza itzalena
fazista oker, napar reketek
Euzkadin egin zuena
gitxi eretxi gauza oyeri
kendu deuskue geure ama
lendabiziko guraso zarrak
au da esaten zuena
iñoren gauzaik geuk ez degu nai
eman bakotzai berena.

10

Euzkadi ama bakar bakarra
ez egidazu negarrik
euzkeldun zintzo eta garbiak
zainduko zaituguz beti
zikindutako seme okerrak
bialdurikan emendik
zeruan dago Sabin maitia
Jaunaren eskoi aldetik
biyak dirauskue zeuena da ta
artu egizue Euzkadi.

11

Bai Gernikako zugatz ederra
zu ziñan euzko zaindari
illuntasuna beste gauzarik
ez da errian agiri
zigortu eta zapaldirikan
batzar leku eta guzti
altza biotzak euzko gudari
diadar egiñaz alkarri
zarren onduan zugatz berria
egin biar degu jarri.

12

Barru barrutik esaten deusat
Jose Antonio Agirreri
zerade gizon biotz bikua
oraintxen dezu agiri
mendirik mendi izkilluakin
ikusi zaituez sarri
Ama Euzkadiren askatasuna
nai dezulako ekarri
Sabin len zana ludi onetan
zera bere ordezkari.

13

Agur gozo bat egiten deusat
Euzko Buru Batzarrari
Mendigoizale, euzko langille
alkarturikan eurari
emakumiai zer esanik ez
goraldirikan Euzkadi
besarkatuta geratuten naiz
Euzkadin ministuari
esana bada askatasuna
biar dezute ekarri.

14

Biotz biotzez eskatzen deusat
geure Jaungoiko onari
goi zerutikan izan dedilla
Euzko amaren zaindari
pizti txar asko sartu dira ta
euzkeldunak gagoz larrri,
egun dontsua izango degu
lagundurikan alkarri
danok batera abestu daigun
Gora ta gora Euzkadi.

Bertso paper hau Ondarroa inguruko bertsolariren batek edo bertso jartzailereren batek egina da seguraski, izen gabe dagoenarren. 1937-1940 bitarte horretakoa dalakoan nago. Eskuz idatzitako kopia batetik jaso dut. Ez ziran garai egokiak honelako bertso paperak zabaltzeko, eta kopiatu zuenak ezkutuan zuen.

Hamarreko nagusian egina dago eta egin zuena bertso zalea zen. Baina ahal zuen erara egiten zuen eta tartean potoren bat ere sartzen du. Adibidez bigarren estrofan. Hor «orrenbeste tramankulo» jarrita zuzendu daiteke hutsa. Grafia zuzen jarri dut hitz bat bera ere aldatu gabe.